



# JON B. EGUZKITZA ZANAREN JAIOTZ EUN-URTEA

Gizaseme argi, langille zintzoa ta euskaltzale fiña. 1919'an Euskaltzain izendatua.

Lemona'n jaio zan 1875'gn urteko zernendiaren 28'an. Eun urte, beraz, aurtengo azaroaren ogetazortzian. Gertakizun au alik eta egoki ta ondoen ospatzeko, Euskaltzaindiak bere Illeroko batzarra Lemona'n egin nai izan dau; eta orrelaxe egin be, Bizkaiko Aldundiaren Buru-ordeko, erriko Udaletzeko, euskal idazle mordo eder bat eta erri osoa inguruan zitula.

Amar t'erdietan meza nagusia amazazpi apaizek emonda: itzaldia Lemoa'ko ta Eguzkitza bere gaztarroan ondo ezagutu eban Arraibi jaunak egin euskun, oso ederto, Eguzkitza Euskalerriko gatza izan zala azaldurik. Ostean, Eguzkitza'ri eleiz-ondoan jaso yakon otoitarria

estalgetzea, argazki ugari ta A. Onaindia'ren itz laburrakin: Lemona'k izan ditu, ta ba-ditu gaur be, gizon ospetsuak, jakite ta kulturaz, ta orreintzako gomuta-arriak eskatu ebazan.

Ezpata-dantzari talde txikia, Lemoa'koak jakiña, gertu egozan, baiña ez eben ezer egin, euri zaparrada itzela zalako. Eta onegaz, guztiok, eleizatik kilometro erdira lez dagozan eskola barrietara zuzendu giñan. Emengo areto ederrean, iragarrita egoan lez, Eguzkitzari kultura omenaldia. Aita Villasantek egin eban itz lenengo; gero Eusebio Erkiagak, «Eguzkitza zanaren bizitza ta lanak» gai ebala, ta azkenez Aita Onaindiak, «Eguzkitzaren eleiz-idazlanak» aztertuz. Ordu bi egin ondoren, amaitzeko, ainbat gazteri irakasle agiria emon yaken.

Omenaldi ederra bene-benetan!  
Ettan guztia jan-edana bakarrik  
izan; esta bear bel

Eguzkitzaren eleiz-lanak, idaz-  
tziak jakina —ildakoan itxi eus-  
kun sermoi-pillo aundia, euskal  
jaietan egindakoak, «Garbitokiko  
Arimaen Illa» (Bilbao, 1915), «An-  
dra Maria'ren Loretako Illa» (Zor-  
notza, 1919) ta «Argi Donea» (Zor-  
notza, 1933 ta 1935) aitatu ta  
onein guna ta mamia azaldu on-  
doren, amaitzeko, itz oneik esan  
euskuzan A. Onaindia'k Lemoa'ko  
euskal idazle bikaiñari buruz:

Orain, gure jakin-griñak ez da  
mairik eta, Eguzkitzak zelako  
idazkera edo estiloa eukan ikusiko  
ogu, labor-labor.

Idazle ugari ta oparoa izan Eguz-  
tza bere lan osoari begitu bat  
in ezker. Ume ta gazteak ikaste-  
etan emoten daberen buruko mi-  
ta lana ez da geienez urria iza-

ten. Lemoarrak, alan be, tarteka  
marteka idatzi egiten eban, lumea-  
ri eragin. Idaztean, oster, gaia  
ikasi oi eban lenengo, zeatz eta sa-  
kon; gero euskeraz oldoztu, pen-  
tsatu, euskeraz ausnartu ta euske-  
raz idatzi, eskribidu. Orrelaxe lor-  
tu eban idazteko erreztasun izuga-  
rria, baita idazteko estilo bere-be-  
rea be, idazle guztiok bakotxak be-  
rea izan oi dogun lez. Eta ikusi no-  
raño eldu zan. Orixe'k au idatzi  
eban beiñola... nire ustez, orainar-  
te izan dogun euskal idazlerik bi-  
kaiñena dogu Eguzkitza.

Bai, euskal idazlerik geienak oso  
goi ipiñi izan dabe gure lemoar az-  
karra. Manuel Lekuonak onela:  
«Prosa oparoa, itz ondo neurtua,  
joskera jatorra —bizkaieraz gutxi-  
txo bezelakoa—; aundikeri puztu  
ta anpaturik gabea; dana adi-errez;  
itxuraz xalo, baiñan estilo ondotox-  
landua, beaztoporik gabekoa... ki-  
rru leuna gorulari trebearen es-  
kuan antzo» (**Euskera**, 1953, 39  
orr.).

Eta K. Etxenagusiak: «Maixu ba-  
tek lez idazten dau beti Eguzki-  
tza'k: argi, otz, zuzen, kontuz...  
Bear bada, astunegitxua egiten ja-  
ku, luzarora, bere idazkerea, itzen  
garbitasunari ta gramatikako le-  
geai lotuegi edo dalako» (**E. I. Lo-  
rategia**, 231 orr.).

Arratia'ko izkelgi edo dialektua  
darabil; ez gero oni geiegi loturik,  
zabal eta ikasia baiño. Aditza, biz-

kaitar aditza trebe ta nasai darabil  
beti. Alan eta guzti be, ba ei ditu  
bere akatsak, utsak, edozein idaz-  
lek izan oi dabean lez. Gramatika  
legeak zeatzegi zaintzen ei dauz,  
eta ortik sortzen yako irakurtean  
astun samarra izatea. Egia ete?  
Baita norbaitek esan dau irudimen  
gitxi daukala. Egia ete? Eritxi-  
emoilleak eta kritikalaria sarri  
edozer gauza esaten dabena, ba-da-  
kizue. Literatura gauzetan, gaiñera,  
zenbat buru ainbat aburu, zenbat  
irakurle ainbat eritxi.

Beraz —amaitzeko—, atsegin  
yatzuen ala ez zeuek ikusi daizuen,  
urrengo zati au irakurriko dau-  
tzu. Ba-dakizue, edo jakin bear  
zeunkie, an gerra aurretik «Kari-  
kiño Sari» bat zala, Donosti'ko  
«Euskaltzaleak» bazkunak 1929'an  
jarrita. Lenengoa Orixe'k irabazi  
eban, eta bigarrena, au da, 1930'-  
garren urtekoa, Eguzkitza jaunak.  
«Emakume Euskotarra» zala-ta lan  
eder bat idatzi eban. Entzun zati-  
txo au.

«Naiz soiñez naiz gogoz emaku-  
me euskotarra baiño oso ta orni-  
duagorik, gutxi lur zabalean. Azbe-  
gi egokiak ditu, margo gorrizuri,  
begi zoli, begirakun mazal eta gar-  
bi. Gorputzez lerdin, lirain, txairo,  
sendo, bizi ta bizkorra da: ori da-  
la-ta batek baiño geiagok emaku-  
me eredutzat artu dabe. Giltzak lo-  
kabe, gerria malgu, giarrak zauli,  
zanak bizi ditu. Oiñez bide luzeak

egiten gitxi irabazi dautsoe: bu-  
ruan zama astuna dauala txairo  
ibilten, iñok be ez.

«Latziñean bedar ebaten, soloan  
lailan, itaurrean, itzain, bateletan  
arraunlari, kaietan soñlari, itxa-  
sontziak bete ta utsitzen, naiz bu-  
ruan zorro andia dauala, kalean  
zear ikusi daberen arrotzak, arrituta  
gelditu dira ta emakume euskota-  
rren gora andiak egin dabez.  
Izan be, indarraz gaiñera, berariz-  
ko ganora ta yasa daukaz orretara-  
ko emakume euskotarrak...

«Garbi ta langillea da emakume  
euskotarra. Soiñekoak naiz oe-aza-  
lak ikuzi ta garbitzen diarduanen,  
esku ta atzak bereak ditu: eun eta  
miesak edurra baizen zuri ipinten  
eta etxeok txukun eta garbi era-  
bilten ba-daki. Etxetik ataz lanik  
astun eta gogorrenetan laguntzen  
dautso gizonari eta etxeok zeregi-  
ñak ondo egiten oni irabaziko dau-

**Bizkai, oi Bizkai!**

**Euskeraz egin**

**zazu!!!**



## BIZKAIA

tsen emakume gutxi. Gizon-laguntza barik, etxe ta bazterra ondo zaindu, umeak ondo azi ta etorkizunari arpegi emon dautsen emakume alargunak ezautu doguz.


«Irudimen bizi, buru argi ta biotz samurra daukaz. Berarizka ikasketarik egin ez arren be, eguneroko arazoetan ba-daki urtenbide egokiak idoroten eta au edo beste zegaitik eta zelan izan dan susmau ta igarten. Azalez bena, barrenez alai... mazal, adikor eta

laztandu» (Yakintza, 1935, 86 orr.).

Auxe dozue Eguzkitzaren idazkera, estiloa. Jori, ugari ta bizia. Auxe da gure gizona: abade zintzo ta idazle bizkor. Gure artekoa; gure artean jaio, bizkortu ta zintzotua. Guk zer? Egoki yaku onako gizonak goratzea, onako gizonak eredutzat artu ta geure oiñak arein oiñatzetan ipiñiaz, arej jarraitzea. Orrela bedi.

Aita Onaindia

## EUSKERAZ



## EUSKERAZ

NIKOLA TELLERIA joandako urrillaren 30'an il zan, 49 urtetan. Auetatik zazpi Zamora'ko apaiz-espexean igaro zitun. Sopelana'ko erre-tore zan, eta berton il zan. Bilbao'ko Gotzai-etxean beste batzuekin batera gose-oporra egin zuelako, amabi urteko zigorra leporatu zioten. Ona Nikola gizaseme lez, margoztuta. «Beti —esan oi zuan—, kristau ta apaiz bezela baiño len gizon bezela pentsatu izan det. Gunean gizona gera aurrena, besteak izen-lagunak dira. Gizon erlijiosa izatea da bearbearrezko. Zuzentasunik ere ez dago, gizona bera da zuzena. Auxe da, labur, nere apaiz-bizitzaren filosofia». Bego betiko argitan murgildua, kezka ta neke guztien atsegarri.

## Jakintzarriak

### LIBURU BARRIAK

I. **ZUENTZAT.** Azpeitia'tar Julene, euskal idazle fiñak egifia. Aurtxoentzako ipun eta irakurgaiak, Donostia'ko «Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones» etxean argitara emona. 217 orrialde ditu liburuak. Umetxoentzat argitaratuak izanda be, edozeiñek izango dau atsegiña liburu eder au irakurriaz.

II. **EUSKERAZKO EUN MAITE-OLERKI ONENAK.** Aita Onaindia'k osoturiko poesi-bilduma. M. Retana'k Bilbao'n argitaratua. 215 orrialde. Euskeraz ta erderaz dagoz olerki oneik. Ba-ditugu, ba, euskeraz be maistasuna gai daben bertsoak, bizi ta ariñak, eta ez gitxi. Erri-olerkiak adierazten daukuez ondoen gure biotz maiteminduaren zeaztasunak, zarrada ta gozotasunak. Danetatik dituzu txorta onetan: errikoiak asko, ta gure literaturako olerkarien sentipen samurrak be, ez gitxi.

III. **OTOIZLARI 79.** Iratzeder, Beloke'ko abata ta euskal olerkari bikian danak, ateratzen daukuz aldizkari zentzunezkoa. Otoitzmensi artatik argi ederra eskintzen dauku, illero, Jainkoa ta urko laguna maite izaten ikasi ta saiatu gaitez. Pozik irakurtzen dogu.

IV. **OROITZAK.** Zubiri'tar Iñaki'k idatzitako liburu mardula. 282 orrialde daukaz. Zarautz'eko Itxaropenak argitaratu dau. Gorbeia'ko bizitza ta jaaokunak azaltzen ditu, ipuin antzera; lendik be, orrelalako artikulua batzuk emon euskuzan «Agur»-en, «Agiñalde'ko Txepetxa»-ren izenpean. Ederto biribildurik dago. Egilleak ba-dau irudimena.